

Gobernu Batzordea

Junta de Gobierno

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak, bere 23. artikuluan Tokiko Gobernu Batzarra, eta horrek hitzez hitz honela dio:

23. artikulua

1. Alkateak eta legean ezarritako zinegotzi-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute tokiko gobernubatzarra. Alkateak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.

2. Tokiko gobernu-batzarrari hauek dagozkio:

a) Alkateari bere eskumenak gauzatzeko laguntzea.

b) Alkateak nahiz beste udal-organoren batek eskuordetzan emandako edo legeek aitortutako eskumenak.

3. Alkateordeek alkatea ordeztzen dute, beren izendapen-hurrenkeraren arabera, alkateak kargua hutsik laga nahiz bera kanpoan aurkitu zein gaixorik dagoenean. Alkateak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu alkateordeak tokiko gobernu-batzarreko kideen artetik, eta tokiko gobernu-batzarrik ez badago, zinegotziren artetik.

4. Alkateak tokiko gobernu-batzarreko kideei eman diezaieke zenbait eskumen gauzatzeko eskuordetza, eta tokiko gobernu-batzarrik ez badago, alkateordeei; hala ere, eginkizun zehatzetarako, edozein zinegotziri eman diezaioke eskumeneren eskuordetza berezia, nahiz eta tokiko gobernu-batzarreko kide ez izan.

La Junta de Gobierno Local se encuentra regulada en el artículo 23 de la Ley 7/85, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y literalmente dice:

Artículo 23.

1. La Junta de Gobierno Local se integra por el Alcalde y un número de Concejales no superior al tercio del número legal de los mismos, nombrados y separados libremente por aquél, dando cuenta al Pleno.

2. Corresponde a la Junta de Gobierno Local:

a) La asistencia al Alcalde en el ejercicio de sus atribuciones.

b) Las atribuciones que el Alcalde u otro órgano municipal le delegue o le atribuyan las leyes.

3. Los Tenientes de Alcalde sustituyen, por el orden de su nombramiento y en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, al Alcalde, siendo libremente designados y removidos por éste de entre los miembros de la Junta de Gobierno Local y, donde ésta no exista, de entre los Concejales.

4. El Alcalde puede delegar el ejercicio de determinadas atribuciones en los miembros de la Junta de Gobierno Local y, donde ésta no exista, en los Tenientes de Alcalde, sin perjuicio de las delegaciones especiales que, para cometidos específicos, pueda realizar en favor de cualesquiera Concejales, aunque no pertenecieran a aquélla.»